

# Tangerretik, kamio baten azpian ezkutatuta



Ikasle Kaiera

Felisa Arbizu Bacaicoa



## AURKIBIDEA

SEKZIOAREN TITULUA .....	3
KASUAREN DESKRIBAPENA .....	3
ERANSKINAK .....	12

## SEKZIOAREN TITULUA

### KASUAREN DESKRIBAPENA

2007ko martxoaren 30ean, Fernandok, Barakaldon (Bizkaia-Espainia) kokatutako inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren harrerarako Biziberri zentroko zuzendaria eta hezitzailea, marokkoar jatorriko beste adingabe bat zetorrela jakin zuen.

Amir zen, 15 urteko adingabea, Tangerren (Marokko) jaioa. Gaizki irtendako hiru ahaleginen ondoren, 2006ko abenduan, fruta garraiatzen ari zen kamioi baten azpian gordeta, azkenean, lortu egin zuen mugako polizia saihestea eta Algecirasera (Espainia) iritsi zen. Bi hilabeteko bidaiaren ostean, Bilbora (Bizkaia-Espainia) iritsi zen eta *Ertzaintzak* (euskal polizia) inoren kargura ez dauden adingabe immigranteentzako lehen harrerako zentro batera bideratu zuen. Zentro honetan hilabetez egon ondoren, Gizarte Zerbitzuek Fernando zuzendari den harrera-zentroa eman zioten. Amirrek beldurtuta zegoela zirudien, ahul, baina irribarretsu eta atsegin. Bere gaztelera maila hilabete batean lehen harrerako zentroan ikasitakora mugatzen zen.

Gizarte Zerbitzuek helarazi zioten Emirri buruzko txosten laburra baino laburragoa aztertuta, Fernandok zera galdetu zion bere buruari: *Nondik hasiko naiz? Zein elementu hartu behar ditut kontuan?*

### **Amirren bidai**

Amirrek, bere anaia bizkiaren pausoei jarraituz, azkenean, Algecirasera iristea lortu zuen. Zikin, kamioiaren ihes-hodiaren kez belztuta, gazteleraz tutik ere jakin gabe, Algeciraseko kaleetan barrena noraezean ibili zen. Zailena lortua zuen, Espainiara igarotzea, baina 4 egunetan jan gabe eta norabiderik gabe, ez zekien zer egin... Nahi zuena lortuta, arrisku guztia pasata, zergatik sentitzen zen hain gaizki?... Ondo egin zuen Tanger uztean? ...Nola egongo zen bere ama?... Nahasita, uzkurtuta, eta negarrez aurkitu zuen izkina batean Josek, arabiera pixka bat lardaskatzen zuen bertako gazteak. Bere etxera eraman zuen, bertan garbitu ahal izan zen, jaten eman zion, arropa garbia eman zion, hizketan aritu ziren eta Amirrek bere abentura kontatu zion, nola lortu zuen zaintza saihestea eta kamioiaren azpian gordetzea ferryko zeharkaldian barrena. Kontatu zion bere anaia bizkiak ere alde egin zuela Tangerretik bi hilabete lehenago eta zuen azken berria zela Espainia iparralderantz zihoala. Esan zion saiatu zela, baina alferrik, Madrilen bizi zen osaba bati (aitaren anaia) deitzen. Osabak bazeramatzan zenbait urte espainiar hiriburuan lanean eta bi seme txiki zituen. 12 ordu baino gehiago lo egin ondoren, animatuago zegoen eta argi zuen pasatutako zailtasunak pasatuagatik, ez zuela Marokora itzuli nahi. Josek Amirren osabari deitu zion etxetik eta proposatu zion Madrilerako autobusaren

txartela ordaintzea. Madrilen osabaren familiarekin bizi izan zen hilabetez, baina ez zen gustura sentitzen.

Egun batean, osabaren etxean zegoela, anaia bizkiaren deia jaso zuen. Adingabeentzako harrera-zentro batean zegoela komentatu zion. Bilborako autobusa hartzea proposatu zion eta hitz eman zion autobus-geltokira joango zitzaiola bila. Handik bi egunera, Bilboko *Termibus* geltokian, zain zituen anaia eta haren lagun bat. Haiek Euskal Autonomi Erkidegoan inoren kargura ez dauden adingabeekin jarraitzen den protokoloaren berri izanik, *Ertzain Etxe* batera lagundu zioten; anaiak gaztelera dezente ikasi zuenez, itzultzaile lanak egin zituen. Han egon zen egun eta erdiz. *Ertzainetako* (polizia) bat Marokora itzul zedin konbentzitzen saiatu zen, esan zion hegaldia ordainduko zitzaiola..., baina berak garbi zeukan bidaia luze haren ostean, ez zegoela prest itzultzeko; geratu egin nahi zuen, anaia bezala.

Bigarren egunean, *Ertzaintzak* Zornotzako (Bizkaia) lehen harrerako zentrorra eraman zuen; zentro honek 60 bat adingaberentzako lekua du eta lehen instantzian adingabeak hartzeaz eta Bizkaian dauden zentro desberdinetan birkokatzeaz arduratzen dira. Zentro horretan egon zen hilabete pasatxo. Denbora hori igarota, bere jokaera onarengatik, Barakaldoko Biziberri zentrorra bideratu zuten. Anaia, berriz, bera iritsi berria zela, Artxandako zentrorra bidali zuten, Amirren hitzetan, “gazte gatazkatsuagoentzako zentroa”.

### **AMIRen familia**

Amir Tangerren jaiotzen zen, Marokoko familia tradizional batean. Aita zurgin lanetan aritzen zen, lanak sortu ahala. Ama familia zaintzeaz arduratzen zen. 4 anai-arreba zituen: anaia zaharrenak Holandara emigratu zuen, anaia bizkiak Espainiara emigratu zuen berak baino hilabete batzuk lehenago, eta bera izan zen benetan animatu zuena Marokotik irteteko eta, azkenik, bi arreba gazteak gurasoekin bizi ziren. Pobrezia giroan bizi zen bere lagunik gehienak bezala. Haurtzaroa Tangerreko kaleetan igaro zuen, aitari laguntzen zurgindegiko lanetan. Tarteka eskolara joaten zen eta horri esker irakurtzen eta idazten ikasi zuen pixka bat. 12 urte zituenetik, familiaren eta ingurukoen muturreko pobrezia giroan bizi izan zen: egoera hark eraginda, senitartekoek eta lagunak Europara emigratzen zuten, bere ustez, Marokkon lortu ezin zen bizi-maila lortzera.

### **Biziberri harrera-zentroa**

Amir bideratu zuten *Biziberri* zentroa 2004tik dago funtzionamenduan. 200 metro koadro inguruko eraikin zaharra da, 2 solairutan banatuta. 14 gazte hartzeko lekua du.

Tamaina handiko TB duen egongela du, kanal bateko abonatuak dira, futbol partidak ikusi ahal izateko. Kanal hau adingabeek eurek eskatu zuten, eta hasieran euren diru-kopuruaren zati bat jartzen zuten gastu honi aurre egiteko.

6 logela ditu adingabeentzat eta logela txiki 1 gauez geratzen den hezitzailearentzat. 4 bainugela ditu eta sukaldea, bertan prestatzen dituelarik sukaldariak otorduak (adingabeen ezaugarrietara eta erlijiora egokituta) eta adingabeek kafea, tea edo meriendak presta ditzakete bertan. Egongela txiki bat dute hezitzaileek, bulegoa eta artxibategia zuzendariak, jangela egongelari atxikita. Bi gela txiki-txiki ere badira 2 ordenagailurekin eta ikasgela gisa erabiltzen dute.

Amir 6 logeletako batean kokatu zuten, lau ohatzeko gela txiki bat zen eta 13 eta 14 urteko beste hiru lagunekin partekatzen zuen. Bere armairua zuen eta, hasieran, beste zentroan emandako pijama, barruko arropa eta garbiketarako gauzak besterik ezin izan zuen gorde. Esan zioten denborak aurrera egin ahala eta programa garatu ahala, beste kide batekin partekatuko zuen logela hobe lortzen joango zela.

### ***Biziberriko langileak***

Amir zentrora iritsi zenean, Fernando zuzendariak egin zion harrera eta Yasînekin zegoen, hezitzaileetako bat, marokkoarra bere bezala eta arabiera eta berberera hitz egiten zuena.

Zentroak 7 hezitzaile zituen eta haietatik bi emakumeak ziren. Sukaldaria ere bazuten.

Fernandoren ustez, oso garrantzitsua da emakumearen zeregina adingabe hauekiko esku-hartzean; horregatik daude hiru emakume zentroan. Zentroko giroa lasai da, Fernandok dioten bezala, helburua da familiako etxearen ahalik eta antzekoena izatea.

Zentroko hezitzaileek oso prestakuntza anitza dute, ez dira nahitaez gizarte hezitzaileak, nahiz eta gehienak diplomatuak eta lizentziadunak izan. Fernando, zuzendaria, psikologoa da eta gizarte hezitzaile gisa onetsia. Fernandoren ustez, ona da zentroan lan egiten duten profesionalak heterogeneoak izatea, prestakuntza osagarriak dituztenak, nahiz eta funtsezkoa izan jarrera positiboa izatea adingabe hauekiko lana garatzeko.

Biziberriko hezitzaileen prozesua lanpostuetarako, hau izan da eta izaten da: enplegu-tailerraren bidez, enplegu-modalitate honek urte bete irauten du eta bertan laguntzarako hezitzailearen funtzioa izaten du eta, pixkanaka-pixkanaka, beste funtzio batzuk betetzen joaten dira, beti ere, esperientzia handiagoko hezitzaileen begiradapean. Ikuspegia zera da, joan daitezela adingabeen hezitzaile gisa beraien funtzioa betetzeko gaitasunak egiaztatzen. Zentroak hezitzaile-gaiaren lan bilakaeraren jarraipena egiten du enplegu-tailerreko epean zehar, eta behin

tailerrera ezarritako epea amaituta eta *Berriztu* elkartearen balorazioan oinarrituta, bere giza baliabideen kabinetearen bitartez, hautagaiak aztertzen ditu eta aukeraketa-prozesua egiten du behin betiko sartzeko, hezitzaile kontratuarekin.

Zentroan izaten diren egoera gatazkatsuak ez dira asko; hala ere, heziketa-programaren zutabeetako batek eskatzen du hezitzaileek egoera gatazkatsu hauei aurre egiten jakitea eta modu egokian jokatzeko. Hezitzaileak jakin egin behar du zein testuingurutan dagoen eta zein den bere hezitzaile rola. Zentzu honetan, hezitzaileak erantzun diezaiokete adingabe baten erasoari fisikoki eutsita; baina badira erasoari aurre egiteko beste modu batzuk, eta helburua da hezitzaileek horiek kontuan izatea eta egoeraren arabera, gaitasun fisikoaren edo beste trebetasun batzuen arabera aplikatzea, adingabearen eraso eragotziz.

IKEDAA-en (Inoren Kargura Ez Daude Adingabe Atzerritarrak) beste zentro batzuetan landutako esperientziak adierazten du zailtasun handia dutela adingabe hauek emakume-autoritatearen irudia onartzeko. Zentro honetan, egiaztatu egiten da egoera hori, baina, hain zuzen ere, horrexegatik aukeratu da hezitzaile emakumeak egotea, adingabeek sexu-berdintasunean oinarritutako kultura onartzen eta errespetatzen ikasteko, autoritatea, den sexukoa dela, onartu eta errespetatu egin behar delarik. Zentzu honetan, zentroko zuzendaritzatik animatu egiten dira hezitzaile emakumeak bere funtzioarekin bat datorren autoritatea erabiltzeko.

Hezitzaile-taldea astero elkartzen da programazioa eta bere garapena aztertzeko eta erabakiak hartzeko. Hezitzaile guztiek dute aukera gainbegiratze-saioak izateko. Gainera, hezitzaile guztiek hartzen dute parte *Berriztu* elkarteak eskainitako prestakuntza iraunkorraren plan batean.

### **Zentroaren heziketa-programa**

Fernandok Amir zentrorira iritsi zela jakin zuen unean, hezitzaile-taldea bildu eta harrerarako jarritako protokoloa abian jartzea erabaki zuten; helburua zen Amir zentrorira eta zentroa kokatuta zegoen testuingurura egokitzea.

Lehendabizi, zentroa erakutsi zioten, bere logela, eta zentroan bizi diren guztiak ezagutzen joan zen. Fernandok Yasinen bidez elkarrizketatu zuen Amir, hezitzaileak itzultzailearena egin zuen. Amirrek Tangerreko bizimodua kontatu zion, bere herrialdetik irteteko arrazoiak, zentrorira iritsi arteko bidaia. Fernandok hitz egiten utzi zion, parafraseatu egin zituen hainbat pasarte, esate baterako, familiaren agurra, Algecirasen noraezean ibilitako egunetan sentitu zuena, bere nahiak, anaia bizkiarena...

Fernandok, era berean, zentroaren funtzionamenduaren eta gazteetako bakoitzak zituen zereginen (gela garbitu, mahaia jarri eta jaso, harrikoaren txandak...) berri

eman zion. Esan zion, poliki-poliki, ohitzen jango zela zentroko egunerokotasunera eta hurrengo egunean gaztelaniako eskolekin hasiko zela. Azaldu zion beraren dokumentazioa kudeatzen hasiko zela: osasun txartela, erroldatzea, bizileku-baimena... Ekarri zituen gauzen zerrenda ere egin zuten eta behar zuen guztiarena, arropa, oinetakoak...

Zentroan egondako lehen hilabetean garatutako harrera-planaren protokoloak helburua zuen adingabearen beharrak baloratzea (tabakoa...), ulermen- eta adierazpen-maila gaztelaniaz, ikasketa-maila eta balizko zailtasun-maila, edota baliabide komunitariorik bazuen edo ez. Bakarkako behaketarako erregistroa ere ireki zen: fitxa bat item sail batekin eta adingabearekin jardundako hezitzaile desberdinak betetzen joango ziren. Erregistroak adingabearen alderdi hauek jasotzen zituen: alderdi arazotsuak, gabeziak eta baliabide pertsonalak; Fernandoren iritziz, Amirrek, zentrorra jotzen duten adingabe gehienek bezala, baliabide pertsonal ugari zuen. Hilabetez garatutako protokolo honek adingabearen bilakaera erakutsi zuen.

Harrera-aldi honetan zehar, zentrotik irteten uzten zioten, baina hezitzaile batek lagunduta. Garraio bide publikoak non zeuden, familiarekin komunikatzeko telefono-kabinak non zeuden erakutsi zioten.

Harrera-aldiaren ondoren, zuzendariak eta hezitzaile-taldeak Amireri zuzendutako heziketa-proiektua landu zuten, bost arlo hauetan oinarrituta: gorputzeko higiena, prestakuntza, arlo psikosoziala, afektiboa eta aisia eta denbora libre. Adingabea arlo hauetako bakoitzean alderdi arazotsuei dagokienean nola zegoen deskribatu zen. Gabeziak eta baliabide pertsonalak. Hortik aurrera, helburu orokorrak, zehatzak eta operatiboak planteatu ziren, eta baita arlo bakoitzean lortzeko estrategiak eta jarduerak ere. Hau guztia Amir zentroan egongo zela aurreikusten zen denboraren arabera planteatu zen, hau da, hiru urte inguru.

Heziketa-proiektuan hainbat elementu zeuden, hala nola, logela, paga, indargarri positibo gisa erabiltzen ziren irteera-baimenak, adingabearen jokabideak adostutako programari erantzunez gero, pasa zitekeen beste logela hobe batera; baina jokabidea ez bazen ezarritakoa, eragin zezakeen adinari zegokion diru-kopurua ez aplikatzea.

Bakarkako heziketa-proiektua aurkeztu zitzaion Amireri onar zezan, eta taulan zegoen denen begi bistan. 5 fase zituen, adingabeak programa garatzeko konpromisoa hartu behar zuen. Programaren fase bakoitzak helburu batzuk zituen eta jarduera batzuk hauei lotuta: tailerretara joatea (gaztelania, sukaldaritza...), zenbait betebeharrak etxean (logelaren garbiketa, elkarbizitza...). Adingabea jarduerak, jarrerak edo jokabideak burutzen joan ahala, pasa zitekeen autonomia gutxiagoko fase batetik autonomia handiagokora, bere proiektuarekin bat. Mailaz igotzen zen bezala, jaitsi ere egin zitekeen, jokabidea ezarritakoa ez bazen.

Baina 5 fase guztiak ez ziren berdinak, adingabearen ezaugarrien menpe baitzeuden. Indibidualizazio-printzipio batzuei jarraitzen zitzaien adingabe bakoitzaren abiapuntuan, motibazio-mailan, zentroan egongo zen denboran oinarrituta: azken batean, bakoitzaren ebaluazioa desberdina zen eta da. Fase bakoitza bi hilabete eta erdian behin ebaluatzen da, nahiz eta aldi hori gutxi gorabeherakoa izan. Hezitzaileak ekar dezake asteko balorazio-saiora adingabe bat fasez igotzeko proposamena, eta gainerako hezitzaileek kontrastatu eta baloratu egingo dute. Adingabeak 5. fasea lortzen duenean, horrek adierazten du lortu dituela bere proiektuko helburuak eta prest legokeela unitate erdi autonomoetara igarotzeko.

Unitate erdi autonomoetarako urratsa eman daiteke 18 urte bete aurretik, eta oso modu positiboan bizi izaten dute adingabeek. Alabaina, batzuetan, adingaberen batek eska dezake haietara ez pasatzea; eskaera hau beldurrengatik eta segurtasun ezagatik izaten da, izan ere, zentro erdi autonomoetan bere bizitza independenteki antolatzen hasten dira, nahiz eta tarteka hezitzaile baten laguntza izan.

### **Komunikazioa:**

Amirrek ahalegin handia egin zuen gaztelania ikasteko eta hezitzaileekin komunikatzen saiatzen zen, urte betean gaztelaniaz komunikatzeko maila nahiko jariakorra zuen. Bestalde, elkarrizketarako guneak bultzatzen ziren jokoan, filmen edo TBko programen inguruan. Gune hauetan, Amir arabieraz komunikatzen zen lagunekin, baina ia beti bezala, gaztelaniaz aritzen zen hezitzailea han egoteak zenbait esamolde edo esaldi gaztelaniaz izatea eragiten zuen.

Zentroaren politika hizkuntza bat edo beste batzuk erabiltzeari buruz zera da, adingabeek izan behar dituztela espazio batzuk arabieraz edo *berberez* aritzeko, nahiz eta gaztelaniaren erabilera bultzatzen den. Horregatik, 2. fasetik aurrera, afalorduan eta bazkalorduan gaztelaniaz hitz egiteko eskatzen zaie. Era berean, hezitzaile batekin egiten dituzten talde-aisialdiko ekintzetan, esate baterako, irteerak hondartzara, herriren batera edo zinemara gaztelaniaz hitz egiten dute.

Amirrek, hamabost egunean behin, Marokkoko familiari deitzen zion, horri esker familiarekiko hurbileko tratuari eusten zion.

Gaur egun, hamabostean behin, adingabeak 6 euro jasotzen ditu familiarekin harremana izateko. Dirua ematen zaie deiaren edo nazioarteko telefono-kabinaren frogagiria aurkezten badute.

Era berean, gizarteratzea sustatzen da, bai jatorri bereko (arabiarrek) adingabeekin, bai bertako adingabeekin, prestakuntza-jardueren bidez (ikastera edo aisialdian – kirola, kultur zentroak, etab.- joaten diren zentroetan). Helburua da integratzea,



nahiz eta ulertu beretarrekin egoteko duten gogoak, izan ere, beraien baloreak eta kultura errespetatu egiten dira eta euts diezaieten sustatzen da.

### **Asteko paga:**

Amirrek ez zuen bizitza osoa zentroan igarotzen. Amirrek, gainerako kideen antzera, askatasunez ibiltzeko aukera izan zuen. Beraz, behin lanak eginda, irten zitekeen arratsaldeetan edo asteburuetan. Lagunak bezala, joan zitekeen zinemara, bueltatxo bat egitera, kultur edo kirol jardueretara (futbol-taldeak, arrauna, gazte gunek, liburutegiak ...). Aisialdiko toki horietara edo prestakuntza-zentrorra joateko, astero, *creditrans* (autobuserako edo metrorako txartela) bat jasotzen zuen. Horrez gain, astero diru-kopuru bat jasotzen zuen, hasieran 5 euro, bere gutziatarako.

Gaur egun, 1. fasean dauden adingabeek 8 euro jasotzen dute asteko eta 4. fasekoek 22 euro. Aipatu bezala, paga, bakoitzaren programa betetzeari lotua dago.

### **Lanbide Heziketa:**

Amirrek oinarrizko ulermen maila lortu zuenean gaztelanian, hezkuntza sisteman sartu zen. *Etxelan* lanbide heziketako zentroan matrikulatu zuten. Lehendabizi, gaztelaniazko irakurketa eta idazketa maila indartzeko prestakuntzarekin hasi zen eta, ondoren, Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programan parte hartzea erabaki zuen, zurgintzako modulu bat egiteko. Tailer hau hautatzeko arrazoia zen huraxe zela ezagutzen zuen lanbide bakarra, aitari zurgin lanetan laguntzen baitzion.

Adingabeak, adinaren, gaztelania ezagutzaren eta aurretiko prestakuntzaren arabera, prestakuntza-zentro arautuan edo arautu gabeen matrikulatzen dira.

Fernandoren iritziz, adingabe hauek motibazio altua dute, azkar, diruz ordaindutako lanbide batean sartzeko aukera emango dien prestakuntza jasotzeko.

Zentroak, hezitzaile-taldearen bidez, adingabeak zein prestakuntza-zentrotara joan behar duen proposatzen du.

Zentroaren hautaketa jaso ahal duten eta nahi duten prestakuntza-motan oinarrituta egiten da. 12 eta 15 urteko adingabeak DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ikastetxeetara joaten dira, zaharragoak lanbide prestakuntzako zentroetara, bai HLKPko (Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programa) edo bai Lanbide Heziketakoetara.

Zentro hauetan, adingabeen prestakuntzaren jarraipena oso estua da, hasieran astean behin eta gero hilean behin.

### ***Etxelan prestakuntza zentroa***

*Etxelan* Bilbon kokatutako prestakuntza-zentroa zen. Bertara joaten ziren Bizkaiko harrera-zentro desberdinetako Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Atzerritar (IKEDAA) batzuk. Zentro honek eskolaratze-programa osagarria eskaintzen zuen. 14 eta 16 urte bitarteko gazteei (ez IKEDAA soilik) zuzendua zegoen, ikaskuntza praktikoagoa eta euren beharretara egokituagoa behar zutenei zuzendua.

Zentro honen helburu orokorra zen adingabe hauek autoestimua berreskuratzea, eta heziketa-programa baten bidez lortu ahal izatea, gizartean eta lan munduan sartzen lagunduko zien oinarritzko prestakuntza. Programa honen zutabe giltzarriak hauek ziren: adingabeak jarrera positiboa garatzea bere prestakuntza prozesuarekiko, lan ohitura batzuk hartzen joatea eta lanbide-prestakuntzako prozesuaz arduratzen joatea.

Eskolaratzeko Programa Osagarriarekin (DBHren parekoa) ikasleek honakoa lor zezaketen:

- Graduazioa lortu DBHn (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), eta honekin sar zitezkeen hezkuntza formal arautuko hurrengo faseetan: Batxilergoa edo Lanbide Heziketako Moduluak.
- Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programa bat (HLKP) garatu honako espezialitate hauetan: Zur-arotzeria, Ibilgailuen konponketa, Tentsio baxuko instalazio elektrikoak, Soldadura eta Iturgintza.
- Lan-munduan sartu.

Irakasle talde egonkorra eta esperientziaduna zuen. Ikasgela asko, zurgintza-, elektrizitate-, iturgintza-, sukaldaritza- eta irrati-tailer hornituak. Halaber, bazituen informatika-gela, aisialdi-gela eta kirol-instalazioak: futbola eta saskibaloia jokatzeko eremuak, frontoia eta gimnasioa.

Jangela, eskolaz kanpoko ekintzak eta orientabide-departamendua ere bazuten.

Zentro hau kalitate-kudeaketarako programa bat aplikatzen hasi zen. Horren ondorioz, bertako ikasleen asebetetze-maila azken urtean (2010) bi puntu igo zen eta ikasleen familiakoena bikainen inguruan zebilen.

Fernandok, Amirrekin jarduketa-plana garatzeko, bazuen esperientzia, bazituen baliabideak eta programak, bere zentrotik eta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-sistemako prestakuntza-zentroetatik ezarritakoak. Baina Fernandok uste zuen kasu bakoitza bakarra dela eta horregatik galdetzen zion bere buruari: *Nondik hasiko naiz? Zer elementu izan behar ditut kontuan?*



## ERANSKINAK

### Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Atzerritarei (IKEDAA) buruzko legeria

*“Haur guztiek dute bizitzarako eskubidea. Gobernuek ahal duten guztia egin behar dute hauen biziraupena eta garapena ziurtatzeko”* 6

Artikulua: BIZIRAUPENA ETA GARAPENA, Haurren eskubideei buruzko hitzarmena (UNICEF)

3/2005 Legeak, otsailaren 18koa, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Arretarakoa, ezartzen zuen administrazio publikoek, euren eskumenen arloan, haurren eta nerabeen babes soziala eta juridikoa gauzatuko zutela. Babes-arloaren eskuduntza duen administrazio publikoak uste zuenean haurra edo nerabea babesgabeko egoeran zegoela, Kode Zibileko 172 artikulua eta ondorengo arabera jokatu zuen, hau da, adingabearen tutoretza bere gain hartuko zuen, babes-neurri egokiak hartuko zituen, eta zirkunstantzia hauek ministerio fiskalari jakinaraziko zizkion.

Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren protokoloak, Estatu Espainiarreko Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren gizarte, familia eta urritasun Zerbitzuetako Estatuko Idazkaritzak erredaktatua, adierazten duen legez (ikus 2 eranskina): Inoren kargura ez dagoen adingabe atzerritar baten presentzia antzematean (aurrerantzean IKEDAA) eta adingabea dela egiaztatzea beharrezkoa ez denean, Adingabeen babeserako erakunde publikoari jakinaraziko zaio.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Foru Dekretua, 62/2002 zk., martxoaren 26koa, Bizkaiko Lurraldeko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortu eta berau antolatzeke eta ibiltzeko arauak araupetu dituena. BAO 2002ko apirilak 26.

*Ez dut sartu araudia eta ezta horri buruz komentatutako dokumenturik, irakaskuntza-oharren bidez landuko baita*

### IKEDAA-en arretarako egitura euskal autonomia erkidegoan: IKEDAAentzako harrera-zentroak Bizkaian

Bizkaiko Foru Aldundiko haur Zerbitzuak ezartzen du inoren kargura ez dauden adingabe emigranteek Zornotzako 1. harrerako zentrotik pasa behar dutela. Bertan hasiko da administrazio-kudeaketa eta horren bidez Aldundiak adingabearen tutoretza bere gain hartuko du.

1. pausoa: adingabeak lehen harrerako zentro batera bideratzen dituzte, kasu honetan, Zornotzako Zentrora (Ermurako errepidea), “Landalan” elkartearen menpekoa. Zentro honek 55-60 bat adingaberentzako tokia du. Adingabeak birkokatzeaz eta Bizkaiko hainbat zentrotan banatzeaz arduratzen dira.

2. pausoa: lehen harrerako zentroan egonaldi labur baten ondoren, adingabeak iraunkortasun-zentroetara pasatzen dituzte; bertan, heziketa-programa batean integratzen dituzte. Zentro hauetako heziketa-ibilbidean sartzeko, baldintza batzuk

izan behar dituzte: adingabeak izatea eta gurasoek berrestea Bizkaian egotea nahi dutela, tutoretza Bizkaiko Foru Aldundiak hartuko duelarik, ez dute deliturik izan behar, ezta neurri judizialik bete beharrik, eta buruko gaixotasunik ere ez. Baldintza hauek guztiak betetzen ez dituzten adingabeak, oro har, jokabide gatazkatsuren bat erakutsitakoak edo delituren bat egindakoak, Artxandako “Vivero” zentrora edo “Arcentales”era eramaten dituzte.

3. pausoa edo azken destinoa. Unitate erdi autonomoak dira. Pisuak dira eta ia autonomoki adingabe batzuk bizi dira hezitzaile baten tartekako gainbegiratupean. Destino honen hartzaileak adin nagusitasuna lortzear dauden adingabeak dira (hala gomendatzen badute 2. harrerako zentroek, uste dutelako baduela behar adinako autonomia maila) edo adin nagusitasunera iritsi direnak eta gizarte-arriskuko egoeran jarraitzen dutenak, “Mundutik mundura” izeneko programara pasatzen dira, Bizkaiko aldundiko gizarte bazterketako Zerbitzuaren menpekoa, beti ere, hainbat baldintza betez gero. Baldintzak hauek dira: gutxienez urte 1 eramatea Aldundiaren tutoretzapean, gaztelaniaz jakitea, legearekin arazorik ez izatea, deliturik ez egin izana eta neurri judizialik ez betetzea, buruko gaixotasunik ez izatea, bitarteko ekonomikorik ez izatea, bazterketaren ezaugarri gisa, eta dokumentuak behar bezala edukitzea. Programa honek murriztu egin du bertan egotea 19,5 urte arte (lehen 21 urte arte aplikatzen zen) .

Beharrezkoa da zehaztea IKEDAA baten egonaldia harrera-zentro batean borondatezkoa dela. Hala ere, protokoloek ezartzen dute autoritateek IKEDAA bat aurkituz gero, harrera-zentro batera eraman behar dela.